

HAURREN HEZIKETA: herri txikietako giroa berreskura dezagun

IZASKUN MADARIAGA IRAGORRI

Sustraiia 61 argitaratua

Badira 23 urte pasatxo Oiartzunen, Karrika auzoan, 0-3ko haur-eskola txiki bat martxan jarri genuela udalaren laguntzarekin. Garai harretan auzoetako eskolak ixten hasiak ziren, alegia orain hain arruntak diren kontzentrazio eskolarrak egiten hasiak ziren Oiartzunen ere eta apurka apurka, inongo erremediorik gabe, auzoetako bizitza haurrik gabekoa izatera kondentatu zuten gure hezkuntza agintariek. Horrela bada, hutsik geratutako hainbat eskola.

Baina premia berriak sortzen dira herrietan, nola ez. 3 urtetik gorako haur guztiak eskoletan zeuden, baina txikiagoak ere bazeuden *eskolara* eramateko modukoak. Eta emakumeek bide berriak urratu nahi zituzten etxetik kanpoko lana egin nahirik. Eta familiako estrukturak ez zuen laguntzen horretarako. Eta...

Herrian proiektu berri bati heldu genion: talde bat osatu eta haur-eskola sortzeari ekin. Leku egokia behar genuen eta berehala maitemindu ginen Karrika auzoarekin. Auzotar gutxi ziren eta errez harremantzako modukoak, irekiak, haur txikiekin gozaten zutenak, haurren freskotasan eta bizitasuna estimatzen zutenak. Giro lasaia, baserriz inguraturik, zelaiak, bide zidorrak non-nahi, erreka polit bat, era guztietako abereak, lore ugari, fruitu arbolak han-hemenka, maraguriak, kilkerak, kukua... Dena genuen gure alde. Irakasle-hezitzaileok material aski aberatsa hurrekin lantzeko eta haurrek berriz, zer ikasi ugari gozatuz hezteko. Eta honela ireki genuen gure eskola txikia.

Gure pedagogia, eguneroko irteerei probetxua ateratzea izan zen (eta da). Gure "ikasgela" nagusia, KALEA, gure ikasmateriala berriz, natura, auzoa eta auzokideak.

Gauzak ikasteko errealitatetik zuzenean ikastea bezalakorik ez dago. Egiazkoak diren abereak, behiak adibidez: handiak, marru egiten dutenak, belarra jaten dutenak, esnea jaisten zaienak, kaka eta pixa zipriztinen artean egiten dutenak, bat bestearen ondoan lotuta daudenak, edo larrean aske han-hemenka mazkatzen. Bi dira, ez, asko!. Batzuk pintoak, han beltz bat, txokorra harantzago... Horiek bai betirako geratzen diren oroimenak eta ez ipuinetan ikusten ditugun irudi tuntunak, ezer gutxi adierazten dutenak.

Pentsa zenbat egoera desberdin, zenbat aiekatara hitz egin behar izango dugun hurrekin, zenbat *zergatiei* erantzun behar... Haurrak beti jakin-min eta gertaera guztiaz ohartaraztea izango da gure lana, gertatzen dena ulertzen lagunduz pixkanaka. Hitz egin, kontatu, sailkatu, batu, beste egoeretan antzeman, emozioak adierazi, lagunekin konpartitu, disfrutatu.

Kalean ibiltzen gara, bai. Non landuko du hobeto haur batek bere gorputza, etxe edo eskola zokoan sarturik, edo kalean, libre, kroskadun bideetan zehar ibiliaz, edo

zelaietan zehar, edo maldetan, edo espaloietara igo beharrean, edo pretil gainera igotzeko saioak eginez dabilenean... adibidez? Eta non osasuntsuago?

Haurra bereziki kuriooa da, berri zalea, esperimentazio zalea. Naturak beste kolore batzuk ditu, beste testura batzuk, beste soinuak (txoriak, haizea, euri zaparrada, urruneko zaunkak, oilategi zarata...) beste usaina... Eta gainera egun guztiak desberdinak dira. Non-nahi ustekabeak sortzen dira. Atzo zelai honetan ezin ginen sartu belar handia zegoelako eta gaur bai, belarra moztu bai dute. *Arrasku* baserrira gindoazela, *Luixa Petrinekoa* ikusi dugu eta gailetak eman dizkigu. Euria egin duelako ehundalako putzukoak aurkitu ditugu harrira zipriztinak ateratzen ibiltzeko.... Hainbeste gauza! Eta horiek ezin dira inoiz gelara eraman.

Material merkea dugu baina eskura beti eta beti interesgarria. Haurrentzako proposa, ikasi behar dutenaren tamainakoa. *Juan Joxe* baratzean dabil aitzurrarekin lanean "nire amak, badakizu? urruti egiten du lana" "ba nire aitak fabrika eta gero etorriko da nire bila" Zer lan egiten dute? (...) Gero galdetuko diegu, bale? "Marrazki bat egiteko esango diot".

Jaiak badatoz. Olentzero ospatu dugu eta etxez-etxe goaz Olentzerorekin kantari. *Carmenek* erroskilak egin dizkigu urtero bezala. *Luixak* intxaurrak eta urrak izaten ditu prest guri emateko eta gainera bere etxeko jaiotza erakusten digu. *Trinik*, *Maitxok* eta *Juxtinak*, beste auzokideen modura, gailetak eta gozokiak banatzen dizkigute. Guztiak ezagutzen ditugu, beraiek gu bezala. Askotan topatzen ditugu loreak zaintzen daudela edo ataria errazten edo bizilagunekin hizketan... Ogi zaharrak ere ematen dizkiegu. Pasaeran *ayo* eta *ayo*. Nora zoazte? Egin ahal duzue buelta? Zer ikusi duzue? Gelan jarri behar al dituzue lore horiek?... Bihar etorri eta txerria erakutsiko.

Eskolako bidean kontuz ibili behar izaten dugu! Hainbeste automobil ibiltzen dira!. "Bazteruuuuu, kotxeaaaaa" Txikienak bazterrean esertzen ditugu, horrela ez dago azken orduko ustekaberik eta handiak ere badakite guztiak errepideko alde berean gelditu behar dutela, ezin direla bidea gurutzatzen ibili automobilak bistaratzen ditugunean. Hau ere kalean ibiliaz ikasten, nola bestela?

Herri txikiak eta auzo txikiak eskolez hustu zituzten. Berrikuntza asko egin dira pedagogia mailan baina guztiak gela bizitzara lotuak. Ez dakit nolako txokoak eta badakit nolako tailerrak, ikasgai abstraktuak, eguneroko bizitzarekin zerikusi gutxi dutenak, haurraren interes eta ulermenetik urrun daudenak, artifizialak, elikagai asko bezala, telebistan azaltzen den bizitza bezala.

Eta gure haurtxoek gauzak ulertzeko gorputza erabili behar dute, burua baino gehiago. Zoko-mira ibili, esperimentatu, ukitu, entzun, arakatu. Ikusten duten guztia xurgatzen dute, esponjak ura xurgatzen duen bezala. Txikitako bizipenak betirako arrastoa uzten dute. Disfrutatuz ezagutu dena, etorkizunean maitatuz bizitzen da. Euskal kulturaren murgildurik hazi dena, bere izaerari irmo atxikirik jarraitzen du. Adin hauetan BIZITZEA da preziso.

Bizitzaren eskola -bizia den eskola bilakatuko duena- oraindik berreskuratzeko daukagu eta hori litzateke gure txikientzat egin genezakeen apustu polita. Herri txikietako eskolak berreskuratu eta bide batez herri txikiak suspertu, herriei bizia eman.

Urte asko dira Italian holako proposamena egin zutela irakasle-pedagogo aditu batzuk¹. Beraiek bi gai uztartu nahi izan zuten: pedagogikoa alde batetik, eskola hobetuzkoa zela aldarrikatzen baitzuten eta soziala bestetik, eskola merkeagoa ere bazelako.

Gure Euskal Herri honetan, hamaika eskola natural genituzke. Esperientziak badauzkagu baina,

1. Ideia honekin bat datozen **irakasle animosoak behar ditugu**; ea inguruan dugun aberastasuna egoki aprobetxatzera iristen garen.
2. **Formazioa behar dugu**; ea irakasle eskolak animatzen diren bide berrietan saiatzeko.
3. **Politikoen apustua ere behar dugu**; ea behingoz konturatzen diren haurtzaroan inbertitutakoa etorkizunerako altxor bihurtzen dela.

Bien bitartean, guk gurean jarraitzen dugu.

Izaskun Madariaga Irigorri²
Haur txikien hezitzaile eta pedagogoa

¹ F. Frabboni, A. Galletti, C.Savorelli. **Lehen alfabetoa: ingurunea** liburua. Fontanella. Bartzelona 1980.

² E-mail: madari@euskalnet.net